



INIGO AZKONA

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA ♦

Ikasturte berria, langarra zeruertzean

ABIATU DA hezkuntza sistemaren ontziteria. Zein bere belaontzian, hor doaz haurtzaindegiak eta eskolak, institutuak eta lanbide-heziketako zentroak, unibertsitateak... pribatuak nahiz publikoak. LOMCE legearen haize kontrak haize kontra, eta auzapezen debekuak debeku, hor doaz, joan, denak India urrunetara.

BELAK, EDERRAK. Besteekin batera, bere kolore eta lumarik ederrak bistan, Euskal Herriko Unibertsitateak berak ere ekin dio bidaiari. EHUko errektoreak esana du ezen Europako tren hartu duela unibertsitate publikoak, beharrezko egokitzapenak egin direla eta irakas-kuntza kooperatiboa eta dinamikoa ezarri dela graduatan eta graduon-dotan.

Esana du ezen Bolognak ez duela ekarri unibertsitatearen ez pribatizazioa ezta merkantilizazioa ere. Esana, euskara desagertuko zela ziotenek itsasoan egiten zutela negar, planak bete egin baitira eta berriak diseinatzen hasita baitago unibertsitate publikoa.

Errektoreak dio ekainean amaitu zituztela EHUko ikasleek Europako Unibertsitate Eremura egokitutako lehen graduak, lehen promozioak. Eta ez gaizki. EHUk, gainera, bikaintasun-campusaren domina jasoa du... Haize unibertsalaren bila, hor doa, joan,

EHU, oihalak eta banderak irekita.

ZURAJEA, AHULA. Unibertsitateko agintarien esanak esan, ontziaren zurajeak arduratzen nau, zeren bainago ez dela nahikoa haize-oihal horiei guztiei eusteko. Bada kontu bat arduratzen nauena aspaldi. Eta da ikasleriaren komunikazio gaitasun eskasa. Komunikazio gaitasun linguistikoaz ari naiz. Batez ere, euskarazkoaz.

Unibertsitateko agintarien esanak esan, ontziaren zurajeak arduratzen nau, zeren bainago ez dela nahikoa haize-oihal horiei guztiei eusteko

Letrak ikasten diren fakultate bateko irakaslea naiz, Kazetaritzan. Bada, bertako ikasleriaren euskara-gaitasunak ez du gora egin azken urteotan; aitzitik, irristaka doa itsaslabarretan behera.

Euskara herdoildua, trokelean egina, distirarik gabea, gramatika-akatsez bete... Ahulezia nabarmena du ontziak oinarrizkoak diren trebetasun komunikatiboetan. Nora

eta zeri begira ari gara gure gazteak hezten?

Barkua zuzentzeko arduraren bat badu irakasleriak, alabaina zorabioak jota dago hura: estresaren mende, curriculum loditzeaz arduraturik, eta burokraziak azpiraturik.

Haizeaz gizenduta, oihalak eta banderak helduko dira, heldu, India urrunetara; baina, merkantzia laster da galdua.

– Kapitain, ura sartzen ari da krosko pitzatutik. ■



XDZ



Joanes Etxebarria

♦

KAZETARIA

Barealdian

JOAN DEN asteburuan, Israel boikotatze-ra deitzen duen BDS elkarteak gaualdi polita antolatu zuen Maulen. Afaria, filma eta mahai-ingurua filma egilearekin. Ez nintzen joan, egunerokoaren alde soporifikoak gogoa kendu zidalako: lana, bazkaria, siesta, erosketak, afaria, ohea... Alta, hitzordu berbera uda bete-bete izan balitz, han nengokeen; erasoaren bortitzenean, palestinarren anaia sentitzen nintzen. Iragan udan ez zen aitzakiarik BDSk egin deialdi bakarra ere huts egiteko.

Iragan egun hauetan erran didatenez, filmak Palestinako futbolariaren egunero-

koa erakusten du, entrenamenduetara joateko *check point*etan zenbat denbora galtzen duten eta beste. Horrek ene egunerokoaz pentsakor utzi nau: Afganistan, Irak, Chiapas... Momentuko inarrosaldiek haiei begira jartzen naute, eta barealdiek begirada desbideratzen didate. Emanen diet erantzukizun parte bat hedabideei, eta kazetaria naizenez, beste parte bat eguneroko erritmoari. Ene eskuetan da egunari eman nahi diodan zentzua. Hurbileko norbait hiltzen denean bezala, alta, barealdian omen da gehien eskertzen elkartasuna. ■

